# zineklubak

Grace-k victoriar estiloko etxe batean hartzen du babesa. Grace seme-alabekin bizi da. Haurrek oso gaitz bitxia dute, ezin baitute eguzki argirik ikusi. **Baiona (Vauban), Gasteiz (Azul (JBA), Yelmo Gorbeia), Iruñea (Olite).**

**PRINCESA POR SORPRESA.** AEB, 2001. Zuz.: Garry Marshall. Akt.: Julie Andrews, Anne Hathaway.
★★ *Errauskine* ipuinaren bertsio berri bat da honakoa, non Julie Andrewsek amona maitagarri batena egiten duen. Bere iloba ahate itsusia da, eta Errauskine printzesa bihurtuko du. Ilobak bat-batean Genoviako erreinuko tronua izango du bere esku. **Gasteiz (Mikeldi, Yelmo Gorbeia).**

**SE SOUVENIR DES BELLES CHOSES.** Frantzia, 2001. Zuz.: Zahou Breitman. Akt.: Isabelle Carre, Bernard Lecoq, Bernard Campan. 110 min.
★★★ Zabou Breitman zuzendariaren lehenengo film originala sentibera da, eta aktoreek oso lan ona egin dute, kritikari gehienen arabera. Gizon batek memoriaren zati bat galdu du. Emakume batek ere amnesia du, eta oroimena gero eta bizkorrago galtzen ari da. Biek topo egingo dute, eta maitasun harreman berezia sortuko da. **Baiona (Vauban).**

**SPY GAME.** AEB, 2001. Zuz.: Tony Scott. Akt.: Robert Redford, Brad Pitt, Catherine McCormack, Stephen Dillane.
★★ Txinako Gobernuak Tom Bishop (Brad Pitt) CIAko agentea hiltzera kondenatu du, espioitzagatik. Bere itxaropen bakarra Nathan Muir da (Robert Redford), espia lanbideaz guztia erakutsi zion gizona. CIAk ez du ezer egingo Bishop salbatzeko, baina Muir iritsiko da bere aspaldiko lankidea laguntzeko asmoz. **Gasteiz (Guridi, Mikeldi zinemak, Ster), Bilbo (Ideales), Donostia (Astoria, Bretxa), Iruñea (Carlos III, Golem Baiona), Baiona (Vauban).**

**TANGUY.** 2001, Frantzia. Zuz.: Etienne Chatiliez. Akt.: Saibne Azéma, Andre Dussollier, Eric Berger, Helene Duc. 108 min.
★★ 28 urterekin, Tanguy ikaslea bere gurasoekin bizi da, gaur egun bere adineko gazte asko bezalaxe. Baina Tanguy Unibertsitatean dabil oraindik, eta betiko ikaslea izango dela dirudi. Gurasoek ez dute hain ondo jasango hori, eta tirabirak sortuko dira haien artean. Famili arteko harremanak jorratzen dira. **Miarritze (Royal).**

**THE HOLE.** Erresuma Batua, 2001. Zuz.: Nick Hamm. Akt.: Thora Birch, Embeth Davidtz, Desmond Harrington. 102 min.
★★ Erresuma Batuko ikastetxe-barnetegi batean lau ikasle desagertu dira. Horietako bat, Liz, oroitzapen beldurgarri traumatikoekin agertuko da. Bunker hotz eta ilun batean pasa ditu egunak baina ez da gehiagorekin gogoratzen. Psikologo baten laguntzarekin aurrera egiten saiatuko da. Baina zer gertatu zen? **Gasteiz (Mikeldi, Ster, Yelmo Gorbeia), Bilbo (Avenida, Ideales), Donostia (Bretxa, Warner Lusomundo), Iruñea (Golem Baiona).**

**ZOOLANDER.** AEB, 2001. Zuz.: Ben Stiller. Akt.: Owen Wilson, Ben Stiller, Will Ferrell, Christine Taylor, Milla Jovovich. 89 min.
★ Derek Zoolander urteko *top model*-a izan da hiru urtez jarraian. Baina modaren munduan gorabehera handiak izaten dira eta gazte batek bere postua kenduko dio. Atsekabetuta Zoolander familiarekin itzultzea erabakiko du, meatzean lan egitera. Baina ezingo du bizitza gogor hori eraman eta abangoardiako diseinatzaile ilun baten sareetan eroriko da. **Gasteiz (Mikeldi zinemak, Ster), Bilbo (Mikeldi), Donostia (Garbera, Warner), Iruñea (Golem Baiona, Olite).**



*La espalda del mundo* filmeko irudi bat.

**LA ESPALDA DEL MUNDO.** Espainia-Peru, 2000. Zuz.: Javier Corcuera. Akt.: Guinder Rodriguez, Leyla eta Mehdi Zana, Tomas Rangel.
Haur bat familiari laguntzeko lanean ari da. Emakume bat, berriz, kartzelan dago, pentsatzen duena esateagatik. Eta gizon bat exekutatu egingo dute gutxira. Hiru pertsonaion istorioekin egin du Corcuera zinemagile perutarrak Elias Kerejeta eta Fernando Leon de Aranoarekin batera idatzitako gidoia. Film gogor eta krudela da. Heriotza zigorraren aurka Oñatiko Udalak antolatutako ekimenaren barruan emango dute filma. **Oñati (Santa Ana antzokian). 20:00etan.**

**IN THE MOOD FOR LOVE / DESEANDO AMAR.** Frantzia-Hong Kong, 2000. Zuz.: Wong Kar-Wai. Akt.: Maggie Cheung, Tony Leung, Rebecca Pan, Lai Chen.
Egunkari bateko erredaktoreburuak bizilagun erakargarri bat ezagutuko du. Bien artean adiskidetasun handia sortuko da. Handik gutxira jakingo dute bataren emaztea eta bestearen senarra elkarrekin amodio nahasteetan dabiltzala. **Zumaia (Aita Mari zineman). 22:15ean.**

**EL CASO PINOCHET.** Txile, 2001. Zuz.: Patricio Guzman. Dokumentala.
Augusto Pinochet diktadorea atxilotu bitarteko gertakariak kontatzen dira dokumental interesgarri honetan. Londresen epaiketaren zain egon zen garaia gogoratu du Patricio Guzmanek, baita Txilen azkeneko urteetan izandako egoera ere. **Basauri (Social antzokian). 20:00etan eta 22:30ean.**

**LA CIENAGA.** Arg.-Esp. 2001. Zuz.: Lucrecia Martel. Akt.: Mercedes Moran, Graciela Borges, Martin Adjemian. 102 min.
Mechak, berrogeita hamarren bat urteko emakumeak, La Mandragora etxean pasatzen ditu oporrak, seme-alabekin eta senarrarekin. Tali Mecharen lehengusua da, eta hark ere lau seme-alaba eta senarra dauzka. Bi istripu gertatuko dira, eta bi familiak elkartu egingo dira, uda triste bat elkarrekin pasatzeko. **Elorrio (Arriola kultur aretoan). 20:15ean.**

**LA LUNA EN DIRECTO.** Australia, 2001. Zuz.: Rob Sitch. Akt.: Sam Neil, Patrick Warburton, Kevin Harrington, Tom Long. 104 min.
Mila tona pisatzen dituen teleskopio erraldoi baten *benetako* istorioa kontatzen da. Gizakiak Ilargian emango zituen lehenengo pausoak eskaini behar zituen NASAko teleskopio batek, baina istripu baten ondorioz, Australiako teleskopio erraldoiari bidaliko diote misioa. **Getxo (Areetako Gran Cineman). 20:00etan.**

**EL VIAJE A NINGUNA PARTE.** Espainia, 1986. Zuz.: Fernando Fernan Gomez. Akt.: Gabino Diego, Luis Maria Delgado, Juan Diego, Miguel Rellan.
Herriz herri dabilen umorista talde ibiltari baten istorioa kontatzen du Fernando Fernan Gomezek. 50eko hamarkadako Espainian dago girotua, nekazarien herrietan batik bat. Zinema, futbola eta irratiaren konpetentziaren erruz umoristek arrakasta eskasa izango dute, eta jateko ere gutxi lortuko dute. Baina irribarrerako tarterik izango dute, baita euren arteko harremanetan sakontzeko ere. **Gasteiz (Florida aretoan). 18:00etan.**

**REQUIEM FOR A DREAM.** AEB, 2000. Zuz.: Darren Aronofski. Akt.: Ellen Burstyn, Jared Leto, Jennifer Connely, Marlon Wayans. 102 min.
Heroina, argaltzeko pilulak eta telebista lehiaketak; hiru menpekotasun horiek dira istorio honen gakoa. Izugarri garatutako kontsumo gizarte baten menpeko hiru gaitz, eta sarean eroriko direnak: hiru gazte deserrotu eta haietako baten ama. New Yorken dago girotuta istorioa, amets amerikarra bizioan murgilduz bete nahi duten pertsonaien artean. **Beasain (Usurbe antzokian). 21:00etan.**

**Y TU MAMÁ TAMBIÉN.** EEBB, Mexiko, 2001. Zuz.: Alfonso Cuaron. Akt.: Maribel Verdu, Diego Luna, Gael Garcia Bernal, Diana Bracho, Emilio Echevarria. 105 min.
Julio (Gael Garcia) eta Tenoch (Diego Luna) 17 urteko gazteak dira, eta heldutasuna ahal den azkarren lortu nahi dute. Luisa 28 urteko espainiarra (Maribel Verdu) ezagutuko dute, eta harekin batera, soilik euren irudimenean dagoen Boca del Cielo hondartzara joango dira. **Lasarte (Manuel Lekuona Kultur Etxean). 22:00etan.**

**MEMENTO.** EEBB, 2000. Zuz.: Christopher Nolan. Akt.: Guy Pearce, Carrie-Anne Moss, Joe Pantoliano. 116 min.
Leonard Selby enpresaburu arrakastatsua dela dirudi, baina bere bizitza ia guztia mendeku baten inguruan oinarritzen da. Izan ere, itsututa dago emaztea bortxatu eta hil zion gizona aurkitzearekin. Gainera, Leonardek amnesia mota sendagaitz bat dauka. **Elgoibar (Herriko antzokian). 17:30ean eta 21:00etan.**

**LAST RESORT.** Erresuma Batua, 2000. Zuz.: Paul Pavlikovsky. Akt.: Dina Korzum, Artyom Strelnikov, Paddy Konsidine. 73 min.
Emakume gazte bat semearekin Moskutik irtengo da, mutil-laguna aurkitzeko itxaropenez. Ondoren, asilo politikoa eskatuko du. **Tolosa (Leidor aretoan). 21:30ean.**

**EL CÍRCULO.** Iran-Italia, 2000. Zuz.: Jafar Panahi. Akt.: Fereshteh Sadr Orafai, Maryam Parvin Almani, Nargess Mamizadeh.
Irango zortzi emakumeren bizitza kontatzen du film honek. Fundamentalismoa nagusi den herrialde batean emakumeen eskubideak erabat zapalduak daude. Film honek Urrezko Lehoia irabazi zuen Veneziako Zinemaldian, baita FIPRESCI saria ere. **Gernika (Elai-Alai aretoan). Bihar, 20:30ean.**

**KANDAHAR.** Iran, 2001. Zuz.: Mohsen Makhmalbaf. Akt.: Niloufar Pazira, Hasan Tantaï. 85 min.
Filmeko pertsonaia nagusia Kanadan errefuxiaturik dagoen kazetari afganistandar bat da. Lan honetan argi asko erakusten da Afganistanen emakumeen bizi-baldintzak nolakoak diren; Afganistanera itzultzeko beharrak bultzatuta, bere herrialdera egingo baitu bidaia kazetariak. **Azkoitia (Baztartxo antzokian). Bihar, 22:00etan.**

**El misterio del collar:** 20.30 - 22:45.
**Harry Potter:** 16:00 - 19:00 - 22:00.
**Spy Game:** 17:00 - 19:30 - 22:15.

**GARBERA**
(943 41 12 00) Ikuslearen eguna: Astelehena.
**El señor de los anillos:** 17:30 - 21:30.
**El unico:** 17:00 - 19:30 - 22:30.
**Bandits:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
**The good war:** 17:30 - 19:45 - 22:30.
**A mi madre le gustan las mujeres:** 17:15 - 20:00 - 22:15.
**Zoolander:** 17:15 - 20:00 - 22:15.
**Amor ciego:** 17:00 - 19:30 - 22:30.

**PRINCIPE**
(943 41 12 00) Ikuslearen eguna: Asteazkena.
**La cuadrilla:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
**El hijo de la novia:** 17:15 - 19:45 - 22:30.
**Las aceras de Nueva York:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
**Italiano para principiantes:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Ghost world:** 17:15 - 19:45 - 22:15.
**Jainkoaren ertzak:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

**TRUEBA**
(943 41 12 00) Ikuslearen eguna: Asteartea.
**Juntos (JBA):** 17:30 - 19:45 - 22:15.
**Fucking amal (JBA):** 17:30 - 19:45 - 22:15.

**WARNER LUSOMUNDO**
(943 31 93 00) Ikuslearen eguna: Astelehena.
**Amor ciego:** 17:00 - 22:00.
**Zoolander:** 17:15 - 19:45 - 22:15.
**American pie 2:** 17:30 - 20:00.
**Ni una palabra:** 22:30.
**Bandits:** 17:00 - 19:45 - 22:30.
**El señor de los anillos:** 17:00 - 18:00 - 21:00 - 22:00.
**The hole:**17:15 - 19:45 - 22:15.
**El misterio del collar:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
**Harry Potter:** 17:30 - 22:00.
**El unico:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

ARRASATE

**ALAI ZINEMA**
**Ez dago emanaldirik.**

ATAUN

**HERRI ANTZOKIA**
**Ni una palabra:** 21:30.

AZKOITIA

**BAZTARTXO**
**Ez dago emanaldirik.**

AZPEITIA

**SOREASU**
**Ez dago emanaldirik.**

BEASAIN

**USURBE ANTZOKIA**
**Requiem for a dream:** 21:00.

BERGARA

**NOVEDADES**
**Clara y Elena:** 20:00.

DEBA

**ZUBELZU**
**Ez dago emanaldirik.**

EIBAR

**UNTZAGA**
**Ez dago emanaldirik.**

**RIALTO**
**Amor ciego:** 19:30 - 22:15.

ELGOIBAR

**HERRIKO ANTZOKIA**
**Training day:** 19:30 - 22:15.

ERRENTERIA

**ON BIDE**
**Los silencios de palacio:** 20:00.

HERNANI

**BITERI**
**Ez dago emanaldirik.**

IRUN

**TXINGUDI**
**El señor de los anillos:** 18:00 - 21:30.
**El hijo de la novia:** 16:30 - 19:30 - 22:30.
**Harry Potter:** 16:00 - 19:00.
**El misterio del collar:** 22:00.
**The hole:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
**Zoolander:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**A mi madre le gustan las mujeres:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
**Amor ciego:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
**Spy game:** 17:00 - 22:00.
**Y tu mama tambien:** 19:30.
**¿Quien es Cletis T?:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**Bandits:** 16:30 - 19:30 - 22:30.
**El unico:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.

LASARTE

**LEKUONA**
**Y tu mama tambien:** 22:00.

LEGAZPI

**LATXARTEGI**
**Ez dago emanaldirik.**

MUTRIKU

**EDERRENA**
**Ez dago emanaldirik.**

OÑATI

**SANTA ANA**
**La espalda del mundo:** 20:00.

ORDIZIA

**HERRI ANTZOKIA**
**Ez dago emanaldirik.**

TOLOSA

**LEIDOR**
**Last resort:** 21:30.

USURBIL

**LAUREN**
**Zoolander:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
**El unico:** 16:15 - 18:20 - 20:25 - 22:30.
**Bandidos:** 16:30 - 19:30 - 22:20.
**Spy game:** 16:45 - 19:30 - 22:30.
**El señor de los anillos:** 17:00 - 21:00.
**A mi madre le gustan las mujeres:** 16:10 - 18:15 - 20:20 - 22:30.
**Harry Potter:** 16:15 - 19:15 - 22:15.
**Amor ciego:** 17:00 - 19:45 - 22:15.

VILLABONA

**GUREA**
**Ez dago emanaldirik.**

ZARAUTZ

**MODELO**
**Ez dago emanaldirik.**

ZUMAIA

**AITA MARI**
**Deseando amar:** 22:15.

ZUMARRAGA

**ZELAI ARIZTI**
**Ez dago emanaldirik.**

## Lapurdi

BAIONA

**L'ATALANTE**
(05 59 55 76 63) Ikuslearen eguna: Astelehena.
**The navigators:** 16:45.
**Italian for biginners:** 18:30.
**La vie peu ordinaire de Dona Linhares:** 20:30.
**Amour d'enfance:** 14:45.

**VAUBAN**
(08 36 68 04 45) Ikuslearen eguna: Astelehena.
**Les amants du Nil:** 14:00 - 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**13 fantomes:** 14:00 - 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**Spy game:** 14:00 - 16:30 - 19:15 - 21:45.
**Se souvenir des belles choses:** 14:00 - 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**Les autres:** 14:00 - 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
**Le seigneur des anneaux:** 20:00.
**Harry potter:** 14:00 - 17:00.
**Atlantide:** 14:00 - 16:00.

HENDAIA

**LES VARIETES**
**Les autres:** 21:00.

MIARRITZE

**ROYAL**
(08 36 68 04 45)
**En territoire ennemis:** 15:00 - 20:30.
**Spy game:** 15:00 - 20:30.
**Tanguy:** 15:00 - 20:30.

## Nafarroa

IRUÑEA

**CARLOS III**
(948 24 44 42)
**Amor ciego:** 17:30 - 20:00 - 22:45.
**El señor de los anillos:** 17:30 - 21:30.
**La cuadrilla:** 17:30 - 20:00 - 22:45.
**Bandits:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Spy game:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

**GOLEM (BAIONA)**
(948 25 11 12) Ikusleare eguna: Asteazkena.
**Amor ciego:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Zoolander:** 16:30 - 18:30 - 20:30.
**The hole:** 17:30 - 22:30.
**Bandits:** 17:15 - 20:00 - 22:30.
**El señor de los anillos:** 17:30 - 21:00.
**Harry Potter:** 16:45 - 19:45 - 22:30.
**Spy game:** 19:45 - 22:30.

**GOLEM (YAMAGUCHI)**
(948 25 11 12) Ikusleare eguna: Asteazkena.
**Italiano para principiantes:**16:30-20:30 - 23:00.
**Italiano para principiantea (JBA):** 18:30.
**A mi madre le gustan las mujeres:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30.
**El misterio del collar:** 17:30 - 22:30.
**Ghost world:** 17:30 - 22:30.
**El hijo de la novia:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Amelie:** 20:00.
**Juana la loca:** 20:00.

**OLITE**
**Hijos de un mismo dios:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Good war:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Zoolander:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**El jorobado de Notre Dame:** 22:30.
**Los otros:** 22:30.
**American pie 2:** 17:30 - 20:00.

**PRINCIPE**
(948 24 54 00)
**El unico:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
**Harry Potter:** 16:30 - 19:30 - 22:30.
**Moulin rouge:** 17:15 - 20:00 - 22:45.

ETXARRI-ARANATZ

**UDAL ZINEMA**
**Ni una palabra:** 22:15.

LEITZA

**HERRI ZINEMA**
**Ez dago emanaldirik**

LIZARRA

**LOS LLANOS**
**Kandahar:** 17:30 - 20:15 - 22:30.
**Amor ciego:** 17:30 - 20:15 - 22:30.
**El hijo de la novia:** 20:00 - 22:30.
**El señor de los anillos:** 16:45.

TUTERA

**CINEMAX**
(948 82 86 62)
**Zoolander:** 18:30 - 20:30 - 22:20.
**El señor de los anillos:** 18:00 - 21:30.
**Amor ciego:** 18:00 - 20:15 - 22:30.
**La maldicion del escorpion de jade:**18:00 - 20:00 - 22:20.
**Harry Potter:** 18:30 - 22:00
**El misterio del collar:** 18:00 - 20:15 - 22:30.
**The hole:** 18:00 - 20:00 - 22:00.
**Bandits:** 18:00 - 20:20 - 22:40.
**El unico:** 18:00 - 20:15 - 22:15.

## Nafarroa Beherea

DONAPALEU

**SAINT LOUIS**
**No man's land:** 20:30.

DONIBANE-GARAZI

**LE VAUBAN**
**C'est la vie:** 20:30.

## Zuberoa

MAULE

**MAULE BAITHA**
**Spy game:** 21:00.
**Tosca:** 21:00.